

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Diputatu nagusiaren 306/2020 Foru Dekretua, irailaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2019-2023 legegintzaldirako zehazten duen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Dekretua**

Uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, diputatu nagusiak Arabako Foru Aldundiko egitura ezarri zuen 2019-2023 agintaldirako, sailak eta haien eskumen arloak finkatuz, eta zenbait aldaketa sartuz lehendik zeuden zuzendaritza eta administrazio unitateen egiteko, atxikipen eta mendekotasunetan.

Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 4ko 401/2020 Erabakiaren bidez Enargi Araba SA foru sozietate publikoaren eraketa onetsi ondoren, beharrezkoa da aipatutako dekretua aldatzea, sozietate hori Ingurumen eta Hirigintza Sailari atxikitzen zaiola jasotzeko.

Gainera, Diputatu Nagusiaren Sailaren eginkizunei eta eskumen arloei buruzko artikulua aldatu behar da. Alde batetik, gardentasunarekin eta herritarren parte hartzearekin batera sartu behar da gobernu ona. Beste aldetik, aipatutako sailean sartu behar da Arabako Foru Aldundiak Interneten duen presentzia, legegintzaldi honetan garrantzi handiagoa hartzen ari baita.

Horregatik, dagozkidan eskumenak baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bigarren xedapena aldatzea. Hara nola geratzen den idatzita:

- Erakundea ordezkatzea.
- Gobernuaren jarduna zuzentzea eta sailak koordinatzea.
- Gizarte eta erakunde harremanak.
- Gobernuaren bozeramailletza eta komunikazioaren ardura.
- Legezkotasun kontrola eta fede publikoa.
- Lege aholkularitza eta abokatu defentsa.
- Batzar Nagusiekiko harremanak.
- Miñoiak.
- Herritarren Arreta, Erregistro Orokorra eta ALHAO administratzea.
- Berdintasunerako politika.
- Immigrazio politika.
- Lankidetzak.
- Giza eskubideak.
- Gardentasuna, herritarren parte hartzea eta gobernu ona.
- Arabako Foru Aldundiaren presentzia Interneten.
- Datu pertsonalen babesaren arloko indarreko araudia betetzen dela egiaztatzeko barne ikuskaritza.

- Lurralde Historikoa kanpoan ezagutzera ematea.
- Euskara politikak.
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

Bigarrena.- Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren hamaikagarren xedapeneko 2. apartatua aldatzea. Hara nola geratzen den idatzita:

2. Ingurumen eta Hirigintza Sailari atxikitzen zaizkio Arabako Ur Partzuergoa eta Enargi Araba SA foru sozietate publikoa.

Hirugarrena.- ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 30a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*